

## EDUARDO BIQUENDI

### ¡Ill da!

Iruchulotar jatorrizkua  
benetan jostalaria,  
festa egille pare gabia  
batez ere kantariya;  
biyotz oneko lagun maitia  
guztiz estimagarriya,  
lengo batian jakindu nuben  
nik bai zure ill berriya,  
¡biyotza penaz betezitzaidan  
eta malkotu begiya!

Aiñ ziñan ona ta paketsua  
ain biguña ta eztiya,  
besteri emango zeniyon pozik  
zuk alzenduben guztiya;  
jalde denetan ziñan Biquendi  
beti ondo ikusiya!  
jayotzetikan zenduben berriz  
doai onezko graziya,  
¡ill! zeralako naigabetuda  
Iruchulako erriya!

Etzan festarik zu ez baziñan  
denen tartian arkitzen,  
zuk zenituben zar ta gaztiak  
umore onez jarritzen;  
beti zedorren inguruetan  
koskeruak ziran biltzen,  
ikusirikan ain borondatez  
nola ziñan zu aritzen,  
erritar denak pozaren pozaz  
zurekiñ ziran arritzen.

Zu ikusi nai etzindubenik  
bat ere etzan munduan,  
baizik guztiyak adiskideak  
ziran zedorren onduan;  
far irri goño eta leguna  
zenduben beti abuan,  
¡ill zera orain erritar ona  
aingeru baten moduan,  
zure anima jaso dezala  
Jaunak betiko zeruan!

JOSÉ ARTOLA.